

Etxebizitza hartzearen kostuak behera egin du Euskadin eta Gipuzkoa lurralderik garestiena dirau gazteentzako


[Gazteen Euskal Behatokiak](#) argitaratu berri du '[Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2015](#)' izeneko txostena. Txosten honetan bere kabuz emantzipatu nahi duen 18 eta 34 urte bitarteko gazte soldatadun bati etxebizitza, jabetzan zein alokairuan, eskuratzeak dakarkion kostu teorikoa kalkulatzen da.

Eskuratze-kostu hori kalkulatzeko kontuan hartzen dira adin tarte horretako gazteen batez besteko **soldatak**, batetik, eta bestetik, Euskadiko lurralde bakoitzeko etxebizitzaren batez besteko **salneurriak**, kontratatutako hipoteka-maileguen batez besteko **interes-tasak** bai eta mailegu horien batez besteko iraunaldia ere, erostea aukeratuz gero, edo batez besteko **alokairu-errentak**, alokatzea erabakitzen bada. Dena dela, **estimazio teorikoa** da, batez besteko balioak hartzen direlako kontuan eta ez kasu bakoitzeko berezitasunak (soldata, etxebizitzaren prezioa, hipoteka-maileguaren baldintzak horrelakorik egonez gero, eta abar).

Kalkuluen arabera, **Gipuzkoako** 35 urtetik beherako **gazte** soldatadun **batek bere hileko soldata garbiaren % 58 bideratu beharko** luke merkatu librean etxebizitza erosteko hipotekaren lehen hilerokoa ordaintzera.

Aurreko urtearekin alderatuz Gipuzkoako kostuak ehuneko 8 puntuko beherakada izan duen arren (orduan % 65,7 baitzen), horrela ere Bizkaiko gazteek jasan behar duten kostutik oso gora dago (hileko soldataren %52,2); baita Arabako gazteek etxebizitza librea eskuratzearen kostutik ere (ia hamahiru puntu gehiago, hileko soldataren %45,4).

Etxebizitza jabetzan hartzearen kostuarekin ez bezala, etxebizitza alokatzearen kostuak gora egin du, alokairuen errentak igo egin direlako. **Gipuzkoako** gazteek kostu handiagoei egin behar diete aurre (beren **soldata garbiaren % 67,5**), **Bizkaikoek** baino (**% 64,0**) eta azken horiek **Arabako gazteek** baino esfortzu handiagoa (**% 54,1**), beti ere merkatu libreko etxebizitza bat bakarka alokatzeko egoera hipotetikoan.



Zergatik daude lurraldeen arteko alde horiek? **Gipuzkoan etxebizitzaren salneurriak**, baita alokairu-errentak ere, beste lurraldeetan baino **garestiagoak** direlako, batez ere Araban baino garestiagoak, Araban preziorik baxuenak aurki baitaitezke, eta **soldatak**, aldiz, **antzekoak** dira hiru lurraldeetan.

Bukatzeko, aipa dezakegu hiru lurraldeetan gazte batentzat gutxixeago kostatzen du hipoteka ordaintzeak etxebizitza alokatzeak baino.

Esteka hauetan [txosten osoa](#) eta [laburpena](#) kontsulta daitezke.